

Euskaltzaindia eta Araba



EUSKALTZAINDIA


REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

Alaba Jenerala, 5 01005 Vitoria / Gasteiz

Tel: +34 945 23 36 48 Faxe: +34 945 23 39 40

gasteizordez@euskaltzaindia.net · www.euskaltzaindia.net



A U R K I B I D E A

Harreman Instituzionalak	4
Ordezkaritzaren bulegoak eta ordezkeriak	6
Batzordeak eta egitasmoak	7
Euskaltzaindiaren biltzarrak eta ekitaldiak Araban	8
Euskaltzainak Araban	II
Argitalpenak	12
Araba eta euskara	14

Argitalpen honen laguntzailea:



Harreman Instituzionalak

Araba Euskaltzaindiaren sortzaile

Euskaltzaindia 1919. urtean Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Diputazioek sortu zuten. Lau Diputazioen babesaren garrantzi handikoa bilakatu zen 1976. urtean Euskararen Akademiak ofizialtasun juridikoa lortu arte. Ordutik hona, bertako Administrazioen laguntza ezinbesteko osagarri izan zaio Euskaltzaindiari bere helburu akademikoak lortzeko.

Euskaltzaindiaren ofizialtasun juridikoa

1976.eko otsailaren 26ko Erret Dekretuaren bidez, Euskaltzaindia onartzen da Espainian entitate juridikoaren mailan, beraren Arautegia ontzat ematen da eta horrez gain, koroe berriaren ohore gisa, Euskaltzaindia “Euskararen Erret Akademia” izendatzen da.

“Académie de la Langue Basque” izen eta izanaren ofizialtasuna ere lortu zuen Euskaltzaindiak gero, 1995.eko otsailaren 20ko Frantzia Errepublikako Dekretu baten bidez eta horrekin, Onura Publikoko aitortpena eta estatusa eman zitzaion.

Ordenamendu juridikoa osatuz eta Arabako kasuan dagozkion arau behinenak aipatzearen, honako arauetan berresten da Euskaltzaindiaren eskumena euskararen alorrean: 1979.eko abenduaren 18ko Autonomia Estatutuan, 1982.ko azaroaren 24ko Euskararen Legean eta 1983.ko azaroaren 27ko Euskararen Legean.

Euskaltzaindiak Araban dituen Hitzarmenak

Estatuko Gobernuarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin Euskaltzaindiak mantentzen dituen hitzarmenez gain, Araban baditu honako hauek ere:

Arabako Foru Aldundiarekin eta Gasteizko Udalarekin.

Diputazioarekin aspaldiko kate hura, 1919. urtean sortua, urtez urte berrituz joan da, euskararen aldeko egitasmoak eratuz eta osotuz.

Gasteizko Udalak eta Euskaltzaindiak 1996.eko azaroaren 27an sinatu zuten lankidetza hitzarmena, urtez urte eta gaur arte irauten duena. Akordioaren arabera, hizkuntza aholkularitza, Gasteiz hiriko euskarari buruzko ikerlanak eta argitalpenak gauzatuko dira. Ondorioz, 1998an “Hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko Ordenantza”rako jarraipen batzordean izan da Euskaltzaindia, “Ekin eta Jarrai (Euskaltzaindiaren inguruan)” ikastaroa antolatu zuen 1999an eta 1996tik Gasteiz hiriko kale izendegia osatzeko eta normalizatzeko ikerketak egin eta irizpenak ere eman ditu Euskaltzaindiak. Onomasticon Vasconiae bildumaren barruan *Gasteizko Toponimia* izenburuarekin, oraingoz, hiru liburuki argitaratu dira.

Ordezkaritzaren bulegoak eta ordezkariak

Arabako ordezkaritza zabaldu zenetik hiru ordezkari izan ditu: Henrike Knörr, Patxi Goenaga eta Manuel M. Ruiz Urrestarazu.

1975.eko urriaren 31an zabaldu zen lehen bulegoa Probintzia plazan, Institución Sancho el Sabio egoitzaren barruan. 1979.eko urtarrilean Seminario Diocesanoaren egoitzan hasi berria zen Letren Fakultateko bulego batean kokatu zen ordezkaritza. 1982.ean, Eusko Ikaskuntza eta Euskalerriko Adiskideen Elkartearekin batera, Vicente Goikoetxea kalean izan zen. 1985-2005era San Antonio kaleko “Pando Argüelles” egoitzan. 2006tik, Alaba Jenerala kaleko 5ean.



Ordezkaritzaren bulegoen zabaltze-ekitaldian (2006)

Batzordeak eta egitasmoak

Arabako ordezkarietatik lankidetzan eman zaie Onomastika, Ahoskera, Gramatika eta Jagon batzordeei.

Euskaltzaindiak eta Gasteizko udalak sinatutako hitzarmenari esker, Gasteiz hiriko toponimiaren bilketarako egitasmoa sortu zen 1996.eko azaroan. Gasteizko toponimia lantaldeak 10 urtez lan egin du ordezkarietan. Egitasmoa aurrera doa.

Euskararen Historia Soziala (EHS) egitasmoak Gasteizen eman zituen bere lehen urratsak 2007tik 2008ra, hasierako dokumentazio bilduma eginez eta “Metodologia-eredua finkatzeko lehen mintegia” prestatuz.

Euskararen Hiztegi Etimologikoa (EHE) osatzeko proiektuak 2010ean hasi zuen bere ibilbidea, Gasteizko ordezkarietan, eta zuzendariak eta bi teknikaririk garatzen dute.

Lehenbiziko aldiz informazioz ongi osatutako azpiegitura sendo batekin ekin zaio hiztegi etimologikoa osatzeari, ohiko irizpide metodologikoen arabera.

Egitasmo honen behin-behineko emaitza gisa, hiztegi horren prototipoa eskainiko da, hainbat hitz aztertuko dituen. Dagoeneko, hitzen aukera egin da, sarrera lexikoen mikroegitura zein izango den erabaki da, eta produkzio prozesuan dihardu lantaldeak.

Euskaltzaindiaren biltzarrak eta ekitaldiak Araban

Euskaltzaindiak, osokoen bilkurez eta batzordeen bilerez gain, honako ekitaldiak egin ditu Araban:

- 1969 1969-2-23 Gasteizen, Jardunaldiak: Gabriel Arestik
P. I. Barrutiari buruzko hitzaldia; Lino Akesolok
Jose Paulo Ulibarri-ri buruzkoa
- 1971 1971-9-5 Aramaion, Jardunaldiak
- 1973 1973-4-27 Gasteizen, Jardunaldiak: *Joan Baptista
Gamiz Ruiz de Oteo, XVIII. mendeko euskal olerkari arabarra
(1696-1773)*.
- 1975 1975-8-17 Okondon, Jose Paulo Ulibarri-ri
omenaldia
- 1976 1976-12-27 Gasteizen, Odon Apraiz ohorezko
euskaltzainari omenaldia
- 1978 1978-4-28an Gasteizen, Arabako Foru Aldundian,
Henrike Knörr jauna Euskaltzaindian sartzea
- 1981 1981-11-27 Gasteizen, Arabako Foru Aldundian,
Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak liburukiaren
aurkezpena
- 1982 1982-12-18 Aramaion, Pedro Ignazio Barrutiaren
II. mendeurrena
- 1983 1983-4-27 Gasteizen, Arabako Diputazioaren
Jauregiko areto nagusian batzar irekia, Gamiz-en
liburua aurkeztuz
1983-4-27, Gasteizen, Vicente Goikoetxea kaleko
ordezkaritzaren zabaltze-ekitaldia
1983-4-28, 29, 30 Angoston, Barne Jardunaldiak
1983-4-28 Gasteizen, Juan Bautista Gamiz Ruiz de
Oteoren omenaldia
- 1985 1985-1-25 Gasteizen, San Antonio kaleko
ordezkaritzaren zabaltze ekitaldia
1985-1-25-26 Gasteizen, V. Dialektologia
Jardunaldiak



Gasteizko Toponimia III liburuaren aurkezpena. 2011

- 1986 1986-4-3,4,5 Gasteizen, *Onomastika Jardunaldiak*
- 1988 1988-12-16 Gasteizen, Eusko Legebiltzarrak
Euskaltzaindari harrera ofiziala
- 1989 1989-6-23 Gasteizen, Udaletxean, Gerardo López
de Gereñuren *Toponimia Alavesa* liburuaren
aurkezpena
- 1990 1990-11-8 Gasteizen, Batzar Nagusietako aretoan,
Arabako euskaltzainen adierazpena: *Araba eta Euskara*,
talde guztien aurrean
- 1992 1992-7-22 Eusko Jaurlaritzak Euskaltzaindari
harrera
- 1994 1994-4-22 Gasteizen, Raimundo Olabide, Odon
Apraiz, Federico Belaustegigoitia eta Luis Gonzalez
de Etxabarri euskaltzainei omenaldia,
Euskaltzaindiaren 75. urteurrenean
- 1995 1995-3-30,31 Larrabeen (Legutio),
Euskaltzaindiaren IX. Barne Jardunaldiak
1995-3-31 Larrabeen, Euskaltzaindiaren
"adierazpena" eta Olaizolarrei eta Vicente Botella
Altuberi omenaldia
1995-04-01 Aramaion, Gabriel Jauregiri omenaldia
1995-11-24 Gasteizen, Arabako Foru Aldundiko
Areto Nagusian, Patxi Goenaga euskaltzain
berriaren sarrera-ekitaldia
- 1996 1996-3-26 Gasteizen, Arabako Foru Aldundian,
Toponimia Medieval en el País Vasco. Letra A liburuaren
aurkezpena
1996-9-27, Gasteizen, Udalean bilkura irekia
- 1998 1998-2-19 Gasteizen, Europa Jauregian
Kontseiluak Euskaltzaindari omenaldia

- 1999** **1999-4-21** Gasteizen, Goiuri Jauregian, Gerardo López de Guereñuren *Voces alavesas* liburuaren aurkezpena
1999-9-26, Aramaion, *Euskal Jaien mendeurrena, 1899-1999*
- 2002** **2002-4-18** Gasteizen, Euskaltzaindia Eusko Legebiltzarrean
2002-12-20 Laudion, Federico Belaustegigoitiari omenaldia
- 2003** **2003-12-02** Gasteizen, J. P. Ulibarriren *Euskal Hiztegia-Diccionario Vasco* liburuaren aurkezpena
- 2004** **2004-11-26**, Gasteizen, *VIII. Jagon Jardunaldiak: Eliza eta euskara Gasteizko elizbarrutian*
- 2005** **2005-5-28** Barrundia haraneko Udaletxean, Joan Pérez Lazarraga (1550-1605) idazlearen IV. mendeurrena, 1605-2005
2005-5-27,28 Argomaizen, XIV. Barne jardunaldiak
- 2008** **2008-12-2** Gasteizen, Euskaltzaindiak, Eusko Ikaskuntzak eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak batera erabiltzen duten egoitzan Henrike Knörr omendu zuten, bertako aretoari haren izena jarritz.
- 2009** **2009-4-24** Gasteizen, Arabako Foru Aldundian, Euskaltzaindiaren 90. urteurreneko ospakizunak
2009-05-12 Larrean, Joan Pérez Lazarragaren omenezko oroitarria jartzeko ekitaldia
- 2010** **2010-05-28** Aramaion, Patxi Uribarren euskaltzain berriaren sarrera-ekitaldia



Euskaltzaindia eta Aramaioiko udal ordezkariak

Euskaltzainak Araban

Osoak

Izandakoak:

ERRAIMUN OLABIDE CARRERA (1919)

HENRIKE KNÖRR BORRÀS (1977)

Gaur egungoak:

PATXI GOENAGA MENDIZABAL (1994)

JOSEBA LAKARRA ANDRINUA (2007)

LOURDES OÑEDERRA OLAIZOLA (2007)

PATXI URIBARREN LETURIAGA (2008)

Ohorezkoak

Izandakoak:

ODÓN APRAIZ BUESA (1968)

GERARDO LÓPEZ DE GUEREÑU GALARRAGA (1979)

PEDRO PUJANA AGIRREGABIRIA (1995)

FEDERICO BARRENENGOA ARBERAS (2004)

Gaur egungoak:

GORKA AULESTIA TXAKARTEGI (2010)

Urgazleak

Izandakoak:

FEDERICO BELAUSTEGIGOITIA LANDALUZE (1919)

LUIS GONZALEZ DE ETXABARRI (1919)

ANTONIO BERRUETA ALZOLA (1957)

ANDONI URRESTARAZU LANDAZABAL (1961)

ISIDOR BAZTARRIKA MUNDUATE (1963)

JESUS ATXA AGIRRE (1967)

Gaur egungoak:

PELI MARTIN LATORRE (1969)

MANUEL M. RUIZ URRESTARAZU (1969)

KEPA ENBEITA EALO (1972)

JOSEMARI VÉLEZ DE MENDIZABAL AZKARRAGA (1983)

KOLDO BIGURI OTXOA DE ERIBE (1996)

RIKARDO GÓMEZ LÓPEZ (2006)

ANGEL IBISATE LOZARES (2006)

Argitalpenak



- *Onomastika Jardunaldiak. Toponimia*

Editorea: Euskaltzaindia - Arabako Foru Aldundia 1990
1986.eko apirillean Gasteizen egindako Nazioarteko Biltzarraren agiriak. Hamazazpi berezilarien hitzaldiak eta gainera, elkarrizketen laburpena eta izen-aurkibidea. Onomastika ikasketetarako behar-beharrezko kontsulta-liburua
H. Knörr-en hitzaurrea

- *Toponimia alavesa, seguido de Mortuorios o despoblados y Pueblos alaveses*

Egilea: Gerardo López de Guereñu
Editorea: Euskaltzaindia - Vitoria/Gasteizko Udala 1989
Liburu honetan Gerardo López de Gereñuk Arabako toponimiaz argitaratutako hiru lan nagusi daude bilduak, herrialde horretakoa ez ezik, Euskal Herri osoko onomastikaren ezagutzarako nahitaezkoa

- *Gasteizko Toponimia I. Hiria*

Egileak: Henrike Knörr Borrás eta Elena Martínez de Madina Salazar
Editorea: Euskaltzaindia 2009
Babeslea: Vitoria/Gasteizko Udala
Liburu hau bi zatitan banatzen da. Lehenengoan hiriko toponimoak biltzen dira: mendi, bide, ibai, iturri, eguterkak adierazten dira, baina baita ere, erietxeak, komentuak... Bigarren zatian hiriko kale, plaza eta abarren izenak biltzen dira

- *Gasteizko Toponimia II. Malizaeza*

Egileak: Elena Martínez de Madina Salazar eta Henrike Knörr Borrás †
Editorea: Euskaltzaindia 2009
Babeslea: Vitoria/Gasteizko Udala
Lehenengo liburua Gasteiz hiriari badagokio, bigarren honetan Malizaeza merindadeko herriak biltzen dira: Ali/Ehari, Aretxabaleta, Armentia, Arriaga, Berroztegieta, Castillo/Gaztelu, Gardelegi, Lasarte, Monastioguren eta Mendiola



- *Gasteizko Toponimia III. Gasteizko Ubarandia*
 Egilea: Elena Martínez de Madina
 Editorea: Euskaltzaindia 2010
 Babeslea: Vitoria/Gasteizko Udala
 Liburu honetan Gasteizko Ubarandia osatzen duten sei herrietako (Amarita, Erretana, Miñao, Miñaogutxia, Gamarra eta Gamarragutxia) toponimoak sailkatu eta era arautuan biltzen dira
- *Voces alavesas*
 Egilea: Gerardo López de Guereñu
 Editorea: Euskaltzaindia - Gasteizko Udala 1998
 Arabako gaztelanian erabiltzen diren euskaratikako hitzen bilduma. 2. argitaraldia, Henrike Knörr-en ardurapean
- *Jose Paulo Ulibarriren Euskal Hiztegia/Diccionario Vasco*
 Egilea: Patxi Galék prestatua
 Editorea: AUNIA Kultur Elkartea – Euskaltzaindia 2003
 Patxi Galé García-ren ardura eta arretapean paraturiko euskal hiztegia. Gure hizkuntza duela mende bat galdu eta bizirik zegoenean ere, behar bezala aztertu ez zen eskualde bateko idazlearena da: Okondo, Aiara eskualdekoa, berau Bizkaiko Enkarterriri datxekiola
- *Juan Bautista Gamiz Ruiz de Oteo (1696 -1773)*
XVIII. mendeko arabar euskal-erdal olerkaria
 Editorea: Euskaltzaindia 1982
 Gamiz (1696-1773) Sabandoko olerkariaren obra elebidunaren edizio kritikoa. Beronen literatura balioari euskal literaturaren lekukotasun bakarra izatea gaineratu behar zaio

Araba eta euskara*

Arabako Euskaltzain oso, ohorezko eta urgazleek Euskaltzaindiaren *Jagon* sailarekin egiten duten adierazpena, 1990.eko azaroaren 8an.

“Guk, euskaltzain oso, ohorezko eta urgazleok, Euskaltzaindiaren Jagon Sailarekin batera, Euskaltzaindiaren sortze-xedeetariko bat izanik “hizkuntzaren eskubideak zaintzea”, jendarteko iritziari, eta batez ere Arabakoari, geure kezka bizia agertu nahi diogu, berriki egin diren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak baino lehen, tartean eta gero euskararen gainean eta bereziki probintzia honetan euskara dagoen egoera dela-ta plazaratu diren zenbait aburu eta aldarrikapenengatik.

Araba, Euskal Herri osoa bezala, ez da, kultura eta hizkuntzari dagokiela, era bakarreko izakia, eta euskalduna, Aitzinateaz gero, gure kulturaren oinarritzko osagaia da.

Begi bistakoa da euskara Arabak duen bere-bere hizkuntza dela. Aski da Gerardo López de Guereñuren *Toponimia Alavesa* liburua ikustea, gure probintziako euskal leku izenen nagusigoaz jabetzeko. Duela oraindik ez 200 urte, Landazuri arabar hiztegegileak dioskunez, 53 Hermandadeetarik 22 euskaldunak ziren. Euskarazko lehen hiztegi luzeska Gasteizen bildua da (XVI. mendean), eta autore ezaguneko euskarazko lehen antzerki lana arabar batek egin du (XVIII. mendean).

Ez da hau une egokia Arabako euskararen atzerapenaz luzaz aritzeko. Atzerapen hau historian zehar gertatu den lege, administrazio eta kultur

* Testu hau bere garaian argitaratu zen eran jaso da (*Euskera XXXVI, 1991-1, 337-338*)

prozesuak eragin du, zein hertsia zen eta herrien hizkuntza eskubideak aitortzeko uzkurra. Oroz gain 1936-39ko gerraren ondoren izan ziren handiak kalte hauek. Halaber, ez gara aipatzen hasiko Araban euskarari eusteko eta indarberritzeko gizabanakoek eta erakundeek 1850z gero egin dituzten ahalegin guztiak, batere ez harrigarriak, kontuan hartzen badugu euskaldunak ohartuak zirela “eskubidez berdinak eta jatorriz, hizkuntzaz, ohiturez eta interesez amankomunak” zirela, Ortiz de Zaratek bere *Compendio Foral*-en dioen bezala. Orobat luze joko luke azken ehun urteotan izan diren Arabako euskal idazleen kopuru handia aipatzeak.

Bestalde, zuzenean nahiz zeharka esan ohi denaren aurka, agian komeni da oroitaraztea arabar udalek idazkariei eta langileei euskarazko ezagupena eskatzeko historian barrera izan duten eskubidea, 1924ko urriaren 21eko Erret Dekretuaren baimenez. Gainera, Arabako Diputazioa, Euskaltzaindiaren sortzailea 1918an eta ikastola-sare baten sortzailea ere 1973an, lehena izan zen foru administrazioan erdararen eta euskararen ofizialtasuna agintzeko, 1977ko otsailean, hortaz, indarrean dagoen Autonomia Estatutua eta hartatik etorri diren arauak, Europa demokratiko osoan parekotasunak dituztenak, onartu baino lehenago.

Oraingo egoerari dagokiola, harrigarria da nola ahazten ohi diren zenbait datu, hala nola 1986ko erroldak dakartzanak. Datu ofizial hauen arabera, Arabako euskaldun biztanleria %6,71 da. Honen aldamenean, erdi-euskaldunak %16,96 dira. Beraz, lau arabarretarik bata, zuzenago zein destrebeago, euskaraz mintzatzeko gai dugu. Beste datu batzuk ere ikus daitezke, Gorbeialdekoak, adibidez, non ehuneko hau %50 baino goragoa da. Bestalde, Arabako beste udal batzuetako kopuruek aski garbi adierazten dute jende gehienak elebitasunean sartu nahi duela.

Gertakari hauen aurrean, galdetu behar dugu nolatan egin eta errepika daitezkeen zenbait baieztapen, ezjakintasun edota ezinikusi nabarmenengatik ez bada. Ez da zilegi iragana eta oraina itxuraldatzea, kul-tur ondare bizi bati bidea hertsiaz.

Zer esanik ez, euskara ezin izan daiteke, lanpostu bat eskatzerakoan, lanbide batean edo bestean ezjakinaren edo ezgauzatasunaren estalgarri. Hala ere, ez dugu ulertzen nolatan zenbaitek onartzen duten beste hizkuntzak eskatzea eta aldi berean arbuiatzen euskara eskatzea, hots, Arabako hizkuntzetariko bata eta ofizialtasuna duen hizkuntza dena.

Zein nahi den ere Euskal Herriaren barne-egitura eta zein nahi diren ere politikaren eta alderdien gorabeherak, hauek oro ez baitagozkio Euskaltzaindiari, begi bistakoa da denendako interesgarria dela bi hizkuntzak elkarbizitza eta berdinkiro hedatu eta erabiltzea. Bere lurraldea eta bere kultura ezagutu nahi duen arabar guztiak euskaran du bitarteko utziezinezkoa, ezagupen hori sakona izango bada.

Nolanahi ere, euskara batzuek eta besteek gezitzat erabiltzearen aurka gara guztiz. Euskara ez da inongo alderdi edo ideologiaren jabegoa, eta arabar guztiek beren-beretzat jo behar dute bizitzaren alor guztietan”.

Gasteizen, 1990.eko azaroaren 8an